

## III. IRUNGO MARATOI ERDIA + 10K

### ARAUDIA

#### 1. ARTIKULUA

SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldea eskualdeko atletismo klubak antolatu du, Irungo Udalaren laguntzarekin, Irungo Maratoi Erdia + 10K. 2020ko otsailaren 16an izango da, igande goizean. Zirkuitu eder bat osatu dugu Irún zeharkatuko duena lehen bueltan, 10 kilometro justukoa (helmuga 10K) eta bigarren buelta bat (buelta bera gehi zerbait erantsita) 11,0975 kilometrokoa.

Bi lasterketa-mota egongo dira: Irungo maratoi erdia, 21,0975K izango duena, eta Irungo 10K.

#### 2. ARTIKULUA – PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketan edonork parte hartu ahal izango du kategoria, sexua edo nazionalitatea, atleta federatua izan ala ez, kontuan hartu gabe. Maratoi erdian parte hartu ahal izateko gutxieneko adina 16 urte da eta 10 kilometrokoan parte hartzeko 14 urte.

Parte-hartzea **1500 korrikalaritara mugatu da maratoi erdian eta 700 korrikalaritara 10 kilometrokoan.**

Korrikalari bakoitzak bere gain hartzen du erantzukizun osoa lasterketan, eta probari aurre egiteko behar besteko baldintza fisikoa eduki behar du.

#### 3. ARTIKULUA- IRTEERA ORDUA ETA PROBAREN GEHIENEZKO IRAUPENA

PROBA	IRTEERA ORDUA	GEHIENGO DENBORA
Irungo Maratoi Erdia 21K	9h45	2h 30min
Irungo 10K	9h45	1h 15min

Pasabide-kontrolak:

KILOMETROA	GEHIENGO DENBORA
05	35min
10	1h 10min
15	1h 45min
20	2h 20min
HELMUGA	2h 30min

#### **4. ARTIKULUA - HORNIDURA**

5. kilometrotik aurrera eta 5 kilometroan behin hornidura-postu bat egongo da, eta helmugan korrikalari guztiek hornidura oso bat jasoko dute.

#### **5. ARTIKULUA - SEINALEAK**

Ibilbide osoan zehar argi eta garbi seinalatuta egongo dira puntu kilometrikoak eta zerbitzu desberdinak, adibidez, hornidura-postuak, WC, mediku zerbitzuak, dortsalak jasotzeko tokiak, kontsigna zerbitzua, dutxa zerbitzua, eta abar.

#### **6. ARTIKULUA – SOROSPEN MEDIKOA**

Sorospen medikoa egongo da ibilbide osoan zehar. Helmugan ere sorospen medikoa egongo da. Antolakuntzak, proba baino lehen, mediku azterketa egitea gomendatzen die korrikalariei; era berean, parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du kirola egiteak dakarren arriskua. Zerbitzu mediko ofizialak ahalmena izango du lasterketatik erretiratzeko beraien ustez jarraitzeko baldintza fisiko edo psikiko egokietan ez dela aurkitzen uste duten korrikalaria.

#### **7. ARTIKULUA**

Ofizialki inskribatutako parte-hartzaileek bereziki izango dute ibilbidean zehar edo helmugan jarrita egongo diren zerbitzuetako edozein erabiltzeko eskubidea, esaterako, hornidurak, osasun laguntza, etab. , hala egiaztatzen badute lasterketako dortsal ofizial eta originalaren bitartez. Dortsala bularraldean eraman beharko dute une oro, tolestu, aldatu edo manipulatu gabe.

Antolakuntzak ez die inolako arreta edo zerbitzurik emango goian aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten pertsoneri edo dortsalik gabe edo berori faltsifikatuta lasterketan parte hartzen dutenei, eta horren presentzia detektatzen duen unean bere eskura dituen metodoak erabiliz lasterketatik kanporatuko dute.

#### **8. ARTIKULUA - ZIRKUITUA**

Zirkuitua erabat itxita egongo da trafikoarentzat eta proba jarraitu ahal izango duten ibilgailu bakarrak. Antolakuntzak izendatutakoak izango dira, behar bezala baimenduta eta identifikatuta. Ibilbideak bi buelta izango ditu, lehena 10 kilometrokoa eta bigarrena 11,0975 kilometrokoa.

#### **9. ARTIKULUA – PARTE-HARTZAILEEN ASEGURUA**

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte-hartzaile guztiak istripuetarako aseguru poliza batek babestuko ditu, baina betiere lasterketaren ondorioz gertatu bada istripua. Aitzitik, ez die erantzungo ezkutuko gaixotasunen edo, zuhurtziagabetasunen, axolagabetasunen, edo legeak nahiz araudi hau ez betetzearen ondorioz sortutako arazoei. Bestalde, aseguruak ez ditu bere gain hartuko lasterketa gunera iristeko bidean eta gunetik ateratakoan gerta litezkeen arazoak.

#### **10. ARTIKULUA – DESKALIFIKATZEKO ARRAZOTIAK**

Kontrolak egongo dira irteeran eta 5 kilometroan behin helmugara arte, eta korrikalari guztiek pasa beharko dute nahitaez alfonbretatik.

Korrikalariak automatikoki deskalifikatuak izango dira honako kasuetan:

- Ibilbide osoa egiten ez badute.
- Dortsaleko publizitatea aldatu edo ezkututzen badute.
- Beste korrikalari bati esleitutako dortsala eta/edo txipa eramaten badute.

- Edizio honetako dortsal originala jarria ez badute.
- Helmugan dortsalik gabe sartzen badira.
- Epaileen edo Antolatzaileen jarraibideei kasurik egiten ez badiete.
- Era berean, gogorazi behar da zirkuitu barruan erabat debekatuta daudela antolakuntzakoak ez diren ibilgailu motordunak edo bizikletak ibiltzea.

Deskalkifikatutako parte hartzaileek sarietarako aukera guztiak galduko dituzte automatikoki.

## **11. ARTIKULUA - SAILKAPENAK ETA SARIAK**

### Sailkapenak:

10K eta 21K lasterketa bakoitzean bereizitako sailkapenak egongo dira. 10K lasterketak sailkapen orokor bat izango du eta maratoi erdiak sailkapen globala eta kategorien arabera sailkapena izango du, taula honen arabera:

<b>KATEGORIA</b>	<b>GIZONEZKOAK</b>	<b>EMAKUMEZKOAK</b>
SUB 23	1998 ondoren jaioak	1998 ondoren jaioak
SENIOR	1985/02/17tik 1997/12/31ra	1985/02/17tik 1997/12/31ra
BETERANOAK 35-40-45	1970/02/17etik 1985/02/16ra	1970/02/17etik 1985/02/16ra
BETERANOAK 50+	1970/02/16 baino lehen jaioak	1970/02/16 baino lehen jaioak

### Sariak:

**MARATOI ERDIA: Garaikurra jasoko dute kategorია ABSOLUTOKO lehenengo hamar gizonezkoak eta hamar emakumezkoak eta sub23, beteranoak 50- eta beteranoak 50+ kategorietako lehenengoak.**

- |                              |                     |
|------------------------------|---------------------|
| 1. Gizonezkoa/Emakumezkoa    | Garaikurra + Oparia |
| 2. Gizonezkoa/Emakumezkoa    | Garaikurra + Oparia |
| 3. Gizonezkoa/Emakumezkoa    | Garaikurra + Oparia |
| 4-10. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra          |

**10 K: Garaikurra jasoko dute baita ere 10 kilometrotako lasterketako kategorია ABSOLUTOKO lehenengo hiru gizon eta emakumeek.**

- |                           |                     |
|---------------------------|---------------------|
| 1. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra + Oparia |
| 2. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra + Oparia |
| 3. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra + Oparia |

## **12. ARTIKULUA – INSKRIPZIOAK**

Inskripzioak on-line irekiko dira [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) eta [www.rockthesport.com](http://www.rockthesport.com) atarian 2019ko azaroaren 13an eta 2020/02/15ean, larunbata, itxiko da epea, 20:00tan. Otsailaren 10a, astelehena, baino lehenago egindako inskripzioek norberaren izenarekin pertsonalizatutako dortsala izango dute. EDONOLA ERE, korrikalarien kopuru maximora iritsitakoan itxiko dira (1500 maratoi erdian eta 700 10K). **Proba egingo den egun berean irteeran izen-ematea egiteko aukerarik ez dago.**

Zuzenean bertaratuta izena eman nahi dutenentzat, 3 saltoki dauzkagu: Bi Irunen, Leire Sport denda, Mendibileko zentro komertzialean, eta Bidasoa Atletiko Taldearen bulegoetan, Leandro Agirretxe plaza, 1-2. solairuan, 8. bulegoa, 9:00etatik 14:00etara; edo Hondarribian, Papycop paper-dendan, San Pedro kaleko 42 zenbakian. Dendan inskripzioak otsailaren 11an itxiko dira, asteartea.

**Dendetako izen ematea 2020/01/01etik aurrera egin ahal izango dira.**

## **Bidasoa Atletiko Taldeko bulegoetan izen ematea inskripzioen hasieratik.**

Itzulketak: korrikalariaren titularitate aldaketa egin ahal izango da 2020/01/30 arte, eta 2020/02/01etik aurrera ezingo da inolako aldaketarik egin.

Inskripzioaren prezioa aldatu egiten da inskripzioa egiten den egunaren arabera, era honetan:

<b>INSKRIPZIO EPEA</b>	<b>MARATOI ERDIAREN PREZIOA</b>	<b>10K PREZIOA</b>
Inskribatutako lehen 200	15€	10€
2020/01/15 arte	20€	14€
2020/01/16tik 2020/02/10ra	24€	14€
Azken orduko izen emateak 2020/02/11tik aurrera	28€	16€

### **13. ARTIKULUA – DORTSALAK ETA NAHITAEZKO TXIPA JASOTZEA**

Otsailaren 13a, osteguna, baino lehen egindako inskripzio guztiek korrikalariaren poltsa jaso ahal izango dute Korrikalarien Ferian Palmera Montero gunean (Leandro Agirretxe plaza, 1znb) egingo dena, egun eta ordu hauetan:

**OTSAILAK 15, LARUNBATA: 10.00 - 14.00**

**OTSAILAK 15, LARUNBATA: 16.00 - 20.00**

Korrikalariaren poltsa jasotzeko NAN aurkeztu beharko da derrigorrez.

**Azken orduko inskripzioentzat eta aurrez jaso gabeko dortsal guztiak, lasterketa egunean zuzenean jasoko dira, irteerako gunean, goizeko 8:00etatik 9:15era.**

### **14. ARTIKULUA - KORRIKALARIAREN POLTSA**

Korrikalari guztientzako korrikalari-poltsetan ondorengo gauzak emango dira: dortsal-txipa (dortsal pertsonalizatua izenarekin, 2020/02/10, astelehena, baino lehen egindako inskripzioentzat) kateorraztak, lasterketaren elastiko tekniko bat, kolaboratzaileen eskaintza desberdinak, lasterketaren eta zerbitzuen mapak, kontsignarako eskumuturrekoa, etab.

### **15. ARTIKULUA – DUTXATZEKO, ARROPA JASOTZEKO ETA APARKATZEKO ZERBITZUAK**

Dutxak eta aldagelak Artaleku kiroldegikoak izango dira, irteera eta helmuga guneatik gertu. Arropa jasotzeko eta kontsignatzeko zerbitzua egongo da irteeratik 50 metrora, Zabaltza plazan. Arropa hay bueltatuko dugu froga amaitzean helmugan, San Juanen. Autoz bertaratzen direnei parking hauetakoren bat erabiltzea gomendatzen diegu: Irungo La Salle (doakoa), San Juan plaza, Ficoba (doakoa) edo Colon Ibilbidekoa.

### **16. ARTIKULUA**

Antolakuntzatik kanpoko ezinbesteko arrazoiak medio (ekaitzak, lurrikarak, eraso terrorista, ...) ekintza bertan behera utzi behar bada, inskripzio-tasak ez dira itzuliko. Dortsala jasota zeukaten haiek hurrengo ediziorako abantailazko baldintzak izango dituzte. Segurtasunagatik antolakuntza behartuta egon daiteke ibilbidea aldatzera.

### **17. ARTIKULUA – IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA**

Parte hartzaile guztiek lasterketan izena ematen duten momentuan araudi hau onartzen dute, eta Bidasoa Atletiko Taldeari baimena ematen diote, berak edo beste entitateen bitartez, partaideen datu pertsonalen nahiz proba barreneko euren irudiaren erabilera informatikoa (argazki, bideo eta abarren bidez) egiteko, soil-soilik kirol, promozio edo merkataritza xedearekin.

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak ezartzen duenaren arabera, parte-hartzaileak eskubidea du fitxategi horiek eskuratzeko, betiere bertako edukia zati batean edo guztiz zuzentzeko edo baliogabetzeko xedez. Eskubide hori gauzatzeko, idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldearen egoitza sozialean. (Ramon Iribarren kalea, 4 - behea, atzealdea. 20304 Irun)  
Aurreikusita ez dagoen oro IAAF Araudiaren arabera aztertuko da eta edonola ere Batzorde Antolatzailearen erabakiaren arabera jardungo da.